AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4014

445/2011 EBAZPENA, uztailaren 18koa, Donostia Ospitaleko zuzendari gerentearena, José Julián Landa Maya jauna, berak hala eskatuta, Donostia Ospitaleko zuzendariorde mediko kargutik kentzeko dena.

Donostia Ospitaleko zuzendari gerentearen uztailaren 19ko 729/2010 Ebazpenaren bidez, José Julián Landa Maya jauna Donostia Ospitaleko zuzendariorde mediko izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, Gerentziako Zuzendaritza honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– José Julián Landa Maya jauna, berak hala eskatuta, Donostia Ospitaleko zuzendariorde mediko kargutik kentzea, eta egin duen lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko uztailaren 14tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari ebazpen hau jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Donostia-San Sebastián, 2011ko uztailaren 18a.

Donostia Ospitaleko zuzendari gerentea,
CARLOS ZULUETA GURIDI.